

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROA	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

### 3. HE: BIRZIKLATZE IKASTAROA

#### INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Martxoak: 7, 12, 14, 21, 26, 28 Apirilak: 2, 4, 9 eta 11	IKASGELA/ TOKIA	A-3. gela, IVAP Errekalde Zumarkalea, 18 Bilbo
IRAUPENA	20 ordu	ORDUTEGIA	09:00-11:00
MATRIKULA EPEA	Otsailaren 19ra arte	ONIRITZI EPEA	Otsailaren 26ra arte
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da C-1 maila izatea.
IRAKASLEA ETA DISEINUA	AEK		

#### ZER LORTU NAHI DA

##### HELBURU OROKORRAK

Langileek denboraren joanean hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten maila berreskuratzea eta hizkuntza erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea.

**Oharra:** Ikastaro hau ez da 4 HE prestatzeko.

##### HELBURU ZEHATZAK

- Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran.
- Langileei euskara eguneroko lanean aplikatu dezaten baliabideak ematea.
- Erregistro formala eta informala bereizten eta desberdin erabiltzen ikastea.
- Jardunean errepikatzen diren akatsak zuzentzea
- Lan arloko hiztegia lantzea.

#### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

##### METODOLOGIA

Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

##### IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

- Birziklatze ikastaroak aurrez aurrekoak izango dira.
- Ikastaro horiek lanorduen barruan izango dira, baina ordu-kredituen sistematik kanpo egongo dira, oraingoz behintzat.
- Ikastaro hauek dagokien hizkuntza-eskakizunetik gertuko maila duten langileentzat dira.
- Birziklatzeko ikastaroak ez dira egokiak izango, adibidez, idazki-mota jakinak landu nahi dituzten langileentzat, edota behar espezifiko zehatzak dituzten langileentzat. Ikastaroan administrazioako jardunarekin zerikusia duten idazkiak, gaiak edota ariketak landuko badira ere, birziklatzeko ikastaroen planteamendua ikuspuntu orokorretik dago bideratuta.
- Ikastaroaren osagarri moduan etxerako lanak bidaliko dira.



HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

## 3HE: BIRZIKLATZE IKASTAROA

### PROGRAMA

#### Gramatika:

Euskaltzaindiaren arauak  
Ikasleen zalantzak eta akats gramatikalak

#### Lexikoa

#### Idazmena

Testu antolaketa eta gaiaren garapena  
Testu egokiak eta argiak egiteko hainbat baliabide  
Testu erak:

*Instrukzioak:* oharrak eta argibideak

*Narrazioa:* eskutitz formal/informala, oharrak, berriak, kontakizun laburrak...

*Deskribapena:* lanpostuaren deskribapena, kontakizuna, eskutitz formal eta informala...

*Azalpena:* laneko txostenak, eskaerak, e-mailak, ofizioa, bilera-deia...

*Argudioa:* iritzi-testuak

#### Mintzamena

Elkarrizketak, narrazioak, azalpenak, telefonoz lanean

#### Irakurmena eta entzumena

Lagunarteko solasak, telefonozko elkarrizketak, bat-bateko topaketak berriak, kronikak, eta laneko azalpenak.

### BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

### EBALUAKETA

Ikastaroan zehar betetako eginkizunak hartuko dira kontuan GAI kalifikazioa lortu ahal izateko.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- % 80ko bertaratzea eta aprobetxamendu proba gainditzea

### PREZIOA

186 €

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailbururena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.  
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.